

PINPIRINA

Pinpirina eskuetan dut gakotu

(eskuak elkar)

Nahi baitut nik goxoki ferekatu!

(erhi erakusleak altxa)

Goiti, beheiti, hegalk ditu mugitu

(erhi nagusiak altxa)

Eskuko erhiak dizkit kilikatu

(erhi nagiak altxa)

Nik egin erhi-kaiola dit urratu

(erhi pitiñak altxa)

(e)ta pinpirina orduan zait airatu!

(erhi pototsak lot eta
beste erhiak mugi)

PINPIRINA

MINTZAIRAZ JABETZEA

- *Beldar gosetia* liburua landu.

MUNDUAREN EZAGUTZA

Objektuen ezagutzea, izendatzea, sailkatzea, deskribatzea, erkatzea, dituzten ezaugarrien arabera

(Fitxa)

Artekoak / MS

- Domino jokoa osa ezazu (1. eta 2. fitxak).

Handiak / MS

- Pinpirinak osa itzazu (3. eta 4. fitxak).
- Bi marrazkien arteko bost desberdintasunak atzeman itzazu (5. fitxa).

HAUTEMATEA, NABARITZEA, IRUDIKATZEA, SORTZEA

Jestua baldintza materialei egokitzea (tresnak, euskarriak, materiala)

(Fitxak)

Artekoak / MS

- Margo ezazu marrazkia zainduz (6. fitxa).
- Pinpirina lagun ezazu lorearen atzematzen (7. fitxa).

Handiak / GS

- Marra ttipien gainetik pasatuz, pinpirina marraz ezazu (8. fitxa).
- Pinpirinak hegaldaka dabiltza. Haien bideak marraz itzazu (9. fitxa).

Tindua eta margotzea, adierazteko eta irudikatzeko erabiltzea

- Beldarra margo ezazu eta ondotik gometak gorputzaren gainean kola itzazu (10. fitxa).
- Pinpirin bat osa ezazu, bi eskuetan tindua emanaz. Eskuak, pinpirinaren hegala bilakatzen dira (11. fitxa).
- Pinpirin simetrikoa (12. fitxa).
- Aiten edo amen bestako oparia izan daiteke (13. fitxa).

Kantuen gogoan hartzea eta kantatzen jakitea

Marisorgina (Lodikroko, Amaia Hennebutte).

MUNDUAREN EZAGUTZA

Animalien bizi agerpenen ezagutzea

(Fitxak)

- Pinpirinaren bizi zikloaren ezagutzea (14. - 17. fitxak).
- Pinpirinaren bizi zikloa ordena ezazu (lerroan edo borobilean) (18. - 20. fitxak).

Orrialdearen espazioan kokatzea

Ttipiak / PS

- Beldarrak hostoa jan nahi du. Hartuko duen bidea marraz ezazu (21. fitxa).

Artekoak / MS

- Puzzlea: pinpirinaren puzzlea osa ezazu (22. eta 23. fitxak).
- Labirintoa: pinpirina lagun ezazu lorearen atzematen (24. fitxa).

Handiak / GS

- Taula osa ezazu (25. eta 26. fitxak).
- Pinpirinaren beste erdia marraz ezazu (27. fitxa).

Objektuen ezagutzea, izendatzea, sailkatzea, deskribatzea, erkatzea, dituzten ezaugarrien arabera

Artekoak / MS

- Itxuren kodeari jarraikiz, pinpirinak margo itzazu (28. fitxa).
- Pinpirinak ttipienetik handienera sailka itzazu (29. fitxa).

Handiak /GS

- Pinpirinak ttipienetik handienera sailka itzazu (30. fitxa).





Zenbaki zerrendaren ezagutzea, zifren ezagutzea, kantitate baten zenbatzea zenbakien ahozko segida erabiliz, kantitate buruketen ebaztea


Artekoak / MS









- Pinpirinak hirunaka ingura itzazu (31. fitxa).
- Sare bakoitzean zenbat pinpirin diren errazu (zifra, dadoa edo eskua kolatuz) (32. eta 33. fitxak).
- Pinpirina zifra kodeari jarraikiz etxera itzultzen da (34. fitxa).



Handiak / GS



- Pinpirinak, zifra kodeari jarraikiz margo itzazu (35. fitxa).
- Pinpirinak bosnaka ingura itzazu (36. fitxa).
- Pinpirina zifra kodeari jarraikiz etxera sartzen da (37. fitxa).






































ESKU PINPIRINAK


1-Hondo bat sor ezazu tinduz, margoz edo mustukaz.
Teknika anitz balia ditzakezu.




2-Ezkerreko eskua tinduan busti ezazu eta orrialde gainean ezar.



3-Eskuineko eskua tinduan busti ezazu eta orrialde gainean ezar, erhi-pototsak juntatuz.



4- Pinpirinaren antenak, gorputza eta burua marraz itzazu margo beltz batez.



Margolan kolektiboak ere egin daitezke.


PINPIRINA

Simetria lantzen


Orrialde batean tindu tatxak egizkizu.



Orrialdea erditik plega ezazu eta doi bat zapa, tindua zabal eta nahas daitezzen.






Arta handirekin orria irek ezazu eta emaitzari begiraiozu.



Tindua xukatzen denean, orrialdea berriz plega ezazu.

Pinpirin erdi bat marraz ezazu (pinpirinaren gorputza pleguaren ondoan izan behar da). Orriaren bi aldeak aldi berean motz itzazu.




Taula bat presta ezazu eta katalogoetan edo tapizeria albumetan aurkitu loreak kola itzazu.

Pinpirina irekazu. Kola ezarrazu, pinpirinaren buruan eta gorputzean bakarrik (ez hegaletan).





Gero prestatu duzun taularen gainean ezarrazu, lagunen pinpirinekin betan. Erliebe gehiagoren emateko, pinpirina kartoizko eraztun batean edota tortotxezko buxon batean kola dezakezu.

Antenak ere ezar diezazkiokezu lokarri bat erabiliz.




- Pinpirina motz ezazu.
- Margo dirdiratsuz margo ezazu edo girgileriaz apain, alegiazko harri bitxiekin, aldizkari batean moztu eta gero bernizatu irudiz eta abar.
- Pinpirinaren bizkarrean zurezko oihal pintxeta bat kola ezazu pinpirinaren zintzilikatzeko, bestela iman bat ere kola dezakezu.
- Pinpirinaren buruan bi zilotxo egin itzazu, haietarik lokarri zatitxo bat pasarazteko.

- Marrazki polit bat egin edota olerki bat idatz. Gero pintxetan lot ezazu oparitu aitzin.



Bestela: kartoizko euskarri loredun batean pintxeta kola (katalogoak, marrazkiak, margolanak eta abar erabiliz).






ARROLTZEAK

Arroltzeak


Arroltzeak



BELDARRA

Beldarra


Beldarra



KRISALIDA

Krisalida

Krisalida




PINPIRINA


Pinpirina

Pinpirina


Krisalida






Arroltzeak



Pinpirina




Beldarra







Krisalida



Arroltzeak




Pinpirina




Beldarra




Krisalida




Arroltzeak




Pinpirina




Beldarra






















































Ettxera itzuli aitzin, pinpirinak lore hauek ordena honetan xurgatzen ditu:

1 → 2 → 3 → 4 → 5





Fotokopiatu aitzin,
hautatu konstela-
zioa edo zenbakia
hemen kola ezazu,
nahi duzun zailta-
sunaren arabera.



Bere etxera itzuli aitzin, pinpirinak loreak ordena honetan xurgatzen ditu:

1→2→3→4→5→6→7→8→9→10→11→12

